

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren uztailaren 23ko 222/2018 Foru Agindua, Aguraingo kolektore sare berriaren Eraikuntza Proiektuaren Ingurumen Inpaktuari buruzko Txostena eta Aguraingo HUA berriaren Oinarrizko Proiektua sortzekoa

“Aguraingo kolektore sare berriaren Eraikuntza Proiektua eta Aguraingo HUA berriaren Oinarrizko Proiektua” izeneko proiektua Ingurumen Inpaktu Sinplifikatuko Ebaluazioaren menpe dago, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen bitartez arautzen dena, proiektua honakoen esparruaren barne baitago:

– Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko 3/98 Lege Orokorraren I C eranskina – Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Sinplifikatuko prozedura izan behar duten obra edo jardueren zerrenda (2.7. azpitaldea “Lehenengo mailako sareko hondakin urak garraiatzeko instalakuntzak”).

– Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen II. eranskina – Ingurumen Inpaktu Sinplifikatua izan behar duten proiektuak (8. taldea. Ingeniaritza hidraulikoko eta ura kudeatzeko proiektuak: d) “Hondakin uren araztegiak, edukiera 10.000 eta 150.000 artean eta kopuru horien biztanle baliokideen artean dutenak”.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, proiektuaren sustatzaileak lehen aipatutako dokumentazio hori eman ondoren, hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako eran.

Kontsulten aldia amaitutakoan, Ingurumen Inpaktuari buruzko Txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Bukatzeko, Aguraingo Hiri Antolakuntzako Plan Orokorraren 3. Aldaketa Puntuala aipatu behar da. Horren xedea Aguraingo HUA berriaren ezartze eremuaren barneko lursailen hirigintza kalifikazioa aldatzea da. Hala, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egin zitzaion eta zegokion Ingurumen Txosten Estrategikoren bitartez bukatu zen ingurumen prozedura. Bertan jaso ziren ingurumen integrazioari buruzko zenbait neurri (Ingurumen eta Hirigintza diputatuaren ekainaren 5eko 177/2018 Foru Agindua. ALHAO, 71. zk, 2018ko ekainak 20).


Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2018ko uztailaren 16an emandako Ingurumen Inpaktuari buruzko Txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu Foru Agindu honek. Foru Agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat datoz 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aukerak


1.1. Saneamendu sarearen azterketa:

Aguraingo udal saneamendu sareak udalerriko Hondakin Uren Araztegieta (bi daude gutira) biltzen ditu isuriak.

HUA industrialera iristen diren isuriak Agurain eta Galzar poligonoetatik datoz (mendebaldeko eremua). Sarearen zati hori teoriarik banatzailea da, baina ustiapen analisian egiaztatu den bezala, euri uren zati bat HUAra eramaten da eta bertan tratatzen da. Irudi honetan banatzen da HUA industrialera drainatzen duen eremua:



Gaur egun, Galzar eta Agurain poligonoetako zenbait isuri (ekialdeko eremua) hiriko HUAra drainatzen duen sarearekin batzen dira, irudian ikusi daitekeen bezala:



1.2. Arazte azpiegituren azterketa:

1.2.1. Hiriko HUA:

Hiriko HUA honako instalakuntzak daude: Aurretiazko arbastatzea, finak arbastatzea, harea eta gantzak kentzea, errektore biologikoa, bigarren mailako dekantagailua, lokatzak loditze-koa, lokatzak egokitzekoa eta agente lekua. Arazketa biologikoaren oinarria karga baxuko eta aireztatze luzeko teknologia da, eta zehazki, bi ganbera independentetan banatutako errektore biologikoa.

Gaur egun, hiriko HUA n hainbat arazo daude (Agurain udalerrian eta Galzar eta Agurain poligonoen zati batean sortzen den emaria eta karga jasotzeko ezintasuna, jasotzen dituen isuri industrialek sortutako eraginak eta jasotzen dituen gasen bolumen handiak sortutakoak eta zenbait ekipamenduetan dauden arazoak, urteen ondorioz sortutakoak), eta horiek ziurtatzen dute HUAren bizitza erabilgarria bukatu dela, eta beraz, udalerrian saneamendu azpiegitura berria beharrezkoa dela.

1.2.1. HUA industrialak:

HUA industrialean honako instalakuntzak daude ur lerroan: ekaitz biltegia, helmuga eta "bypass" orokorra, hondakin uren ponpaketa, finak arbastatzea, harea eta gantzak kentzekoa, tratamendu biologikoa hedatutako aireztatze urmael bitartez, lokatzak barnetik berriz ere zirkulatzea eta bigarren mailako dekantazioa. Lokatzen lerroan gehiegizko lokatzen ponpaketa, lokatzen biltegia, lodigarria eta lokatzak deshidratatzeko eremua daude.

Gaur egun HUA industrialak edukiera handia du eskuragarri emari eta karga handiagoak jasotzeko poligonoan hutsik dagoen lurzoruaren etorkizuneko handitzeetan, baina konpondu beharreko arazo hauek ere badaude: poligono industrialeko euri urak sartzen dira, txatarra birziklatzeko bi enpresa baitaude eta horien kanpoko instalakuntzetako lurzorueta metal asko daude, eta horrez gain, HUAren ur gordinaren ponpaketak ez du aurretiazko baheketarik.

Proiektu honen helburua hiriko HUA berria egikaritzea da, eta bertan batuko eta tratatuko dira eremu industrialeko eta hiri eremuko isuriak.

1.3. Eremu geografikoa:

Azterketa honetako proiektua Aguraingo udal mugartearen barnean dago, Araban, probintziako ekialdean. Udal mugarteak 37.856 m² metro karratu ditu. Zadorra ibaiaren eremuan dago, eta ibaiadarrak ere badaude, besteak beste Apóstoles, Alivio, Lezao eta Santa Barbara. Hiri-burua, izen bereko hiribildua, mugartearen erdialdeko-iparraldeko eremuan dago, Zadorra eta Santa Barbara ibaiadarraren artean. Erliebean orokorrean mendi gutxi daude, eta hegoaldean Entzia mendikatea dago, altuera handiagokoa. Bertako mendiak 693 m eta 1.151 m ingurukoak dira (Arrigorrista).

1.4. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak jada bukatutako Aguraingo Hiri Antolakuntzako Plan Orokorraren 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategia sinplifikatuaren prozeduran emandako dokumentazioaren bitartez (bertan egin zen HUArentzako aukeren hautaketari buruzko azterketa osoa), hasiera batean 15 aukera proposatu ziren, eta hautaketa egin ondoren, guztira 5 geratu ziren, honakoak:

– "0": aukera (Aukeratu ez dena): Gaur egungo egoera mantentzea. Aukera hori hasieratik baztertu dute, gaur egungo araztegia ezin delako ez handitu, ez berritu.

– "1": aukera - I. KOKAPENA (Aukeratu ez dena): Aukera honetan Aguraingo saneamendua-
ren eraketa eta banaketa mantendu egiten dira. Beraz, udal HUA berri bat eraikitzea proposatzen du, gaur egun, Zadorra ibaiaren ezker aldean ibaian beheara dagoena ordezkatzuz. HUA berri horretan hirian, Fueros industrialdean, Litutxipi industrialdean eta Galzar-Agurain Ekialdeko industrialdean sortutako hondakin urak tratatuko lirateke, gaur egun bezala. HUA industrialak Galzar-Agurain mendebaldeko industrialdeari dagokion sektorerako funtzionatzen jarraituko luke, nahikoa edukiera duelako.


– "3C": aukera - II. KOKAPENA (Aukeratu ez dena): Aukera honetan udal HUA bakarra eraikitzea proposatu da, eta bertan, batera tratatuko lirateke udalerrian sortutako isuri guztiak, bai hiriko hondakin urak, baita industrialak ere. Beraz, gaur egungo HUA industrialak kentzea ekartzen du. HUA Alivio errekaren ezker aldean ezarriko litzateke, horrela, industria adar bat eraikitzeko aukera egungo litzatekeelako alde horretan, Galzar-Agurain industrialdeko hondakin urak kolektore orokor berrian sartzeko, eta, beraz, dagoen ponpaketa kenduko litzateke.

– “5C” aukera - III. KOKAPENA (Aukeratu ez dena): Aukera honetan, 3. aukera (HUA bat bakarrik eraikitzea eta, hor, uren tratamendu guztiak egitea) eta Aguraingo eta Donemiliagako isuriak bateratzea barne hartzen dira. Kasu honetan, eskualdeko HUA bat eraikiko litzateke Alivio erreka eta Zadorra elkartzen diren gunean, ibaian behera, ezker aldean, Aguraingo udalerrian.

– “6D eta 6E” aukera - IV. KOKAPENA (Aukeratu ez dena): Aukera honetan 5. aukerako saneamendu sistema bera planteatzen da, eta hala, eskualdean HUA bakarra eraikiko litzateke. Kasu honetan, kolektoreen luzera handituz, Zadorra ibaiaren ibilguari jarraituz, ur behera, Los Apóstoles errekaaren elkargunearen ondoren, eskuinaldean, Aguraingo udalerritik kanpo, eta Barrundiako lurzoruan HUA kokatzea proposatzen da.

– “7” aukera - V. KOKAPENA (Aukeratu dena): Aukera honetan 5. aukerako puntu bat jorratzen da, hau da, HUA bakarra sortzea, uren tratamendua zentralizatzeko, baina Alivio errekaaren ezkerreko aldean kokatuko litzateke, Aguraingo hiri nukleotik gertuago.

Hurrengo irudian kokapen guztiak daude jasota (5 guztira), baita aztertutako aukera ezberdinak ere (7 guztira: “0”, “1”, “3C”, “5C”, “6D”, “6E” eta “7”):



Horiek aukeratzeko, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak “Aguraingo saneamendua eta arazketa hobetzeko aukeren azterketa” bat egin zuen, eta hor, zenbait irizpide aztertu ziren, gai hauetan antolatuta:

- Ingurumen analisia.
- Efluentearen isurketa gunearen kokapena.
- Hirigintza analisia.
- Analisi teknikoa eta ekonomikoa.

Egiaztatze eta aztertze prozesu bat egin zen, eta zenbait erakundek eta pertsona interesdunek egindako alegazioak jasota, 7. aukera (V. kokapena) hautatzea erabaki zen, aurretik adierazi den moduan.

Ingurumen inpaktuaren baloraziorako erabaki da aukeratutako kokapena egokia dela.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2018ko maiatzaren 7an Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Aguraingo Udala	
Lautada Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/35 espedientean eta www.araba.eus webgunean daude jasota):

- Arabako Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean adierazi zuen “Eraginpeko eremuan ez dagoela lokalizatutako eremu arkeologikorik. Proiektuan zehaztutako eremua eremu arkeologiko hauetatik hurbil dago: Okarantzako Done Jurgi; Ula herrixka eta Urgutiako errota edo Santa Maria. Hala, gomendagarria da obraren kontrol arkeologikoa egitea, eraginik jasoko ez dutela ziurtatzeko eta sortu daitezkeen aurkikuntza berriak dokumentatzeko. Bestalde, dirudienez aurrekoa inpaktuen deskribapen eta ebaluazioaren 6.1.1.2. puntuan proposatuta dagoela ematen du”

- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak bere txostenean adierazi zuen horderiaren (kolektorea) trazatua nagusiki laborantza lurzatietatik igarotzen dela. Lurzati horiek “Balio Estrategiko Altua” dute Nekazaritza eta Basozaintzako LPSen, eta beraz, Nekazaritza

eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluari erreferentzia egiten dio: "Balio agrologiko handiko lurren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako proiektu edo egintza orori behin betiko onarpena eman baino lehen, nahitaezkoa da nekazaritza gaietan eskumena duen foru organoak txostena egitea". Horretarako, Sektore Eraginpeko Ebaluazioaren Protokoloa atxiki da, eta bertan lurzorua okupazioari buruzko, nekazaritza azpiegituretako eraginari buruzko eta nekazaritza ustiapenen bideragarritasun ekonomikoan izango diren eraginei buruzko azterketa zehatza egin da, eta horren arabera, neurri hauek hartu beharko dira:

– "Obrak gauzatu bitartean luraren profil emankorra babesteko ahaleginak egingo dira, ahal den neurrian kutsa ez dadin edo beste aukera batzuekin nahas ez dadin. Hodiak jarri ondoren saiatu behar da lurra era egokian lehengorutzen, geruza emankorra beste guztien gainean gera dadin, finkak jardueraren aurreko lan baldintzetan utziz.

– Ingurumen Agirian "7.1.3.2. Landare lurzoru ateratzea eta mantentzea" eta "7.1.4. Lurzoruak babestea eta kontserbatzea" ataletan sektore intereseko neurri zuzentzaileak hartzea jasota dago, eta hori positibotzat jotzen da.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak hauxe adierazi zuen: "Azterketa teknikoa egin ondoren ikusi da Historia eta Arkitektura Ondare Zerbitzuak ez duela inolako oztoporik izapidetzerako, balio kulturala duten higiezin elementuei eraginik ez baitie sortzen".

• IHOBE- Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak hauxe jaso zuen txostenean: "Agiriaren edukia aztertu ondoren egiaztatu da bertan jasotako zenbait lurzatiaren historikoki jarduera kutsakorrek egin direla, eta beraz, etorkizunean erabiltzaileentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeela". Horri buruz aplikatu beharreko araubidea adierazi ondoren jakinarazi zen ez direla lurzati guztiak jaso (bakarrik bi agertzen baitira), eta beraz, hauxe adierazi zuten: "Hala, gaur egun, proiektuaren eremuan lokalizatutako lurzatiak inbentarioan kode hauek dituztenak dira: 01051-00018, 01051-00054, 01051-00065, 01051-00067, 01051-00068, 01051-00072, 01051-00075, 01051-00076, 01051-00077, 01051-00087, 01051-00091 eta 01051-00093". Alegazioarekin batera xehetasunaren kartografia eta lurzati bakoitzari buruzko dokumentazio xehea atxiki ziren. Ondoren erabaki zen Lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearekin bat eginez, hauek egin beharko zirela: "Induskatu beharreko materialen bolumena kontuan hartuz, indusketa plan bat aurkezteko beharra edo beharrik eza egongo da, eta plan hori ingurumen organoak onetsi beharko du. Era berean adierazten da edonola ere induskatutako materialak aurretiaz bereizi beharko direla, kudeatu eta/edo berrerabili aurretik hain zuzen ere". Indusketa plana egiaztatutako erakundeek egin beharko dute. Bukatzeko hauxe adierazi zen: "01051-00054 lurzatian AKTIBO EZ DAUDEN ZABORTEGI PUBLIKOAK. II. FASEA - 01051-00054 AGURAIN (VSC-15/12-IB) izeneko espedientearen esparruan jarduketak egin dira, eta horiekin bukatzeko Lurzoruaren Kalitate Adierazpena egin zen (agiria atxiki da)".

• Eusko Jaurlaritzako Ondare Kultureko Zuzendaritzak adierazi zuen jarduketa eremuan Ondare Kultureko eremu hauek daudela: "Okarantzako Done Jurgi"; "Gazeo bideko etxola hondoa" eta "Donejakue Bideko Monumentu Multzoa"; guztiek ere eraginak jasan ditzakete proiektuaren egikaritzearen ondorioz. Beraz, eta zenbait gogoeta egin ondoren, horien artean nabarmentzekoa da urtarrilaren 10eko 2/2010 Dekretuari, Donejakue Bidea EAetik pasatzean Ondasun Kultural Kalifikatutzat sailkatzen duenari Multzo Monumental Kategoria barnean egindako erreferentzia. Hala, honako ondorioak atera ziren: "Planteatutako proiektuaren Ingurumen Ebaluazioa egiteko ezinbestekoa da adierazi diren babestutako ondare eremu eta elementuak gehitzea (...) eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezartzea (...). Beraz, aurreikusitako proiektua egikaritu aurretik arkeologian eskumenak dituzten langileek azterketa arkeologikoa egin beharko dute, eta horren arabera, Arabako Foru Aldundiaren Ondare Kulturean eskumenak dituen organoak ezarriko du ea esku-hartze arkeologiko bat egin behar den lur azpian kontserbatuta egon daitezkeen hondarrak zuzentasunez dokumentatzeko".

• URA Uraren Euskal Agentziak txostenean adierazi zuen proiektuan aurreikusitako ingurumen neurriak egokiak direla, baina eskatu zuen Jabari Publiko Hidraulikoaren esparruan landaketentzako aurreikusitako dentsitatea gehitzeko. Gainera, lehentasunezko fluxu eremuetan materialak biltzea ez dela baimenduta egongo adierazi zuen, eta kolektorearen estankotasuna bermatu beharra dagoela hoditerian ura sartzea saihesteko. Gainera, obrak egin aurretik Ebako Konfederazio Hidraulikoaren administrazio baimena eskatu eta jaso beharko da, Uraren Euskal Agentziak kudeatuko duena.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

“Aguraingo kolektore sare berriaren eraikuntza proiektua Aguraingo HUA berriaren Oinarritzako Proiektua” izeneko proiektutik eratorritako ingurumen inpaktu nagusietan banatu egin beharko liriateke ezartzean sortutako fase ezberdinak, hau da, eraikuntza fasekoak eta ustiapen fasekoak. Ingurumen eragin horiek Ingurumen Agiriaren 6. atalean deskribatu dira, baina hala ere, gabezia batzuk daude, eta ondoren, aztertu den proiektutik eratorritako ingurumen inpaktu nagusiak laburbildu dira, kontuan hartuz orokorrean neurritzekoak direla:

INGURUNEKO ELEMENTUA / EREMU UKITUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Atmosfera	Kutsadura, hautsa eta gasak igortzeagatik eraikuntza eta ustiapen fasean zehar. Zarata kutsadura. Inpaktua sentsibilitate baxuko eremuan izango da, industria eremutik gertu eta biztanleak bizi diren eremuetatik urrun, nagusiki nekazaritza eremuan. Kokapena egokia da ondorio negatibo horiek gutxitzeko. Inpaktua baxua izango dela aurreikusi da.
Geologia eta geomorfologia	Aldagai horiei lotutako inpaktu nagusiak obrekin eta indusketekin, lurra mugitzearekin, instalakuntza osagarrien eremuekin eta materialak biltzeko eremuekin lotuta daude. Inpaktua bateragarria da, kokapena geomorfologia lauko eremu batean aurreikusi baita.
Nekazaritza lurren okupazioa eta produktibitatearen galera	Proiektuaren eremu handi bat EAEko Nekazaritza eta Basozaintza Lurralde Plan Sektorialeko Nekazaritza Balio Altuko lurzoria da. Lurzoru horietan, une hauetan gertatuko litzateke eragina: HUAren azpiegitura eraikitzeko obra fasean, zangak, obrako pistak, obren instalazio osagarriak eta materialak biltzean, nahiz ustiatzeko fasean, HUA eraikitzean azalera bat hartuko litzatekeelako. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak egindako nekazaritza eragin sektorialeko txostena eta ebaluazioa onargarriak dira. Nekazaritza organo eskumendunak adierazitako baldintzen arabera, inpaktua neurritsua izango da.
Alivio errekarren esparruan dagoen landareta	Alivio eta Lezao errekarren eremuan ur baxerako landaredia dute, eta kontserbazio egoera nahikoa da, baina hala ere, konektore interesa handia da. Esparruan eta handik hurbilen dagoen inguruan, lizarrak, makalak eta zenbait zume espezie daude. Horrez gain, zuhaixka ugari daude, hala nola elorri zuria, intsusak, hurritzak eta abar. Inpaktua neurritsua izango dela aurreikusi da, txosten honetan adierazten diren ingurumen neurriak eta baldintzak betetzen baldin badira, baita Aguraingo HAPOn 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura bukatu zuen 177/2018 Foru Aginduan ezarritako neurriak ezartzen badira ere.
Igarobide ekologikoak	Lezao errekarren eremuak eraginak jasoko lituzke Agurain HUA izeneko kolektorearen esparruan, Arabako Foru Aldundiko Igarobide Ekologikoen Sarearen barne dagoena (Arabako Lurralde Historikoko Konektibitate Ekologiko-Paisajistikoko Estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005), laborantzak nagusi diren eremu batean, erreka hori benetako komunikazio bidea eta habitata delako hainbat fauna espezierentzat. Inpaktua neurritsua izango dela aurreikusi da, txosten honetan adierazten diren ingurumen neurriak eta baldintzak betetzen baldin badira, baita Aguraingo HAPOn 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura bukatu zuen 177/2018 Foru Aginduan ezarritako neurriak ezartzen badira ere.
Fauna	Obren fasean lurreko faunan sortuko diren eraginak zaratak gehituko direlako izango dira, baita lurzoria galduko delako eta faunak lotura duen habitata eta/edo landaredia estaldura apurto egingo delako ere. Zadorra ibaian dauden anfibio eta arrainei dagokienez, aurreikuspenen arabera Aguraingo saneamendu proiektua osorik egikaritzen denean, hobekuntza nabarmenak egingo dira habitat hidrológicoan. Inpaktua neurritsua izango dela aurreikusi da, txosten honetan adierazten diren ingurumen neurriak eta baldintzak betetzen baldin badira, baita Aguraingo HAPOn 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura bukatu zuen 177/2018 Foru Aginduan ezarritako neurriak ezartzen badira ere.
Paisaia	Egingo diren jarduketek inpaktu negatiboa eragingo dute paisaian. Eraikuntza faseari bakarrik lotu daitezkeen aldaketak egongo dira, aldi batekoak (metaketa eremua, instalakuntza osagarrien eremua, etab), baina hala ere, azpiegituren ondorioz paisaia modu iraunkorrean aldatuko da. Inpaktua neurritsua izango dela aurreikusi da, txosten honetan adierazten diren ingurumen neurriak eta baldintzak betetzen baldin badira, baita Aguraingo HAPOn 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura bukatu zuen 177/2018 Foru Aginduan ezarritako neurriak ezartzen badira ere.
Kultura ondarea	Jarduketa eremuan Ondare Kulturalako elementu hauek daude: “Okarantzako Done Jurgi”, “Gazeo bideko etxola honoa” eta “Donejakue Bideko Monumentu Multzoa”; guztiak ere eraginak jasan ditzakete proiektuaren egikaritzearen ondorioz. Inpaktua neurritsua izango da, eskumenak dituen organoak adierazitako baldintzak eta neurri babesleak betetzen baldin badira, Arabako Foru Aldundiaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Ondare Kulturalako Zuzendaritzak Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Sinplifikatu prozedura honetako kontsulta fasean adierazitako txostenean arabera.

INGURUNeko ELEMENTUA / EREMU UKITUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Donejakue Bidea	Agurain eta Galzar industria poligonotik (mendebaldeko eremua) proiektatutako HUAra doan kolektoreak bat egiten du Donejakue bideko zati batekin, zehazki 700 metro inguruan, Kañueta kalean. Hala ere nabarmendu behar da Kañueta kaleak 24 metro inguruko zabalera duela, eta asfaltatutako norabide biko galtzada, espaloiak eta inguruko eremu berdeak barne hartzen direla. Donejakue Bidea Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdea denez, 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeenak, ezarritako arauak eta antolamendua bete behar ditu. Era berean, Donejakue Bidea urtarilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bitartez Euskal Herriko Ondare Kultural Kalifikatua izendatu zen Multzo Monumental kategorian. Dekretu hori 2012ko urtarilaren 27ko EHAAan argitaratu zen, 19. zenbakian. Euskadiko Donejakue bideak bi ibilbide ditu, Kostaldekoa eta Barrualdekoa. Aguraindik doana barrualdekoa da: bi ibilbideak kalifikatu dira, oraintsu, Unescoren Mundu Ondasun gisa. Inpaktua neurritsua izango da, 1/2012 Foru Araua aplikatuz ezartzen diren Ibilbide Berde horietako berraztertze neurriak ezartzen baldin badira.
Eraikuntza eta eraiste hondakinak	Kolektoreen obrak, kolektorea pasatzeko A-33022 errepidearen azpian finkatzeak egiteko obrak eta HUAk berak hondakin asko sortuko dituzte (hormigoia, plastikoa, egurra, olioak, papera, etab.), eta horiek guztiak zabortejira eramane beharko ditu baimendutako kudeatzaile batek, eta obran zuzentasunez metatu beharko dira. Gainera, lurragarritasun erabiliko dira, eta berreraikitzen ez baldin badira, kudeatu egin beharko dira (zabortejiak edo mailegu eremuak). Inpaktua neurritsua izango da, eta ezinbestekoa izango da soberakinak egoki kudeatzeko beharrezko neurriak hartzea.
Lurzoru kutsatuak	Proiektuaren eremuan eta inguruan dauden lurzati batzuk lurzorua kutsatzen duten jarduerak jasan dituzte. Inpaktua neurritsua-bateragarria izango da. Horri buruz, IHOBEk kontsulta fasean emandako txostenean adierazitako baldintzak eta neurriak bete beharko dira.
Azaleko urak	Hidrografiari dagokionez eta eraikuntza fasean, inpaktu edo eragin nagusiak obretatik eratorriak izango dira. Horrez gain, eragina izango du baita ere emarien bitartez Zadorraren ibilgura da Alivio eta Lezaio erreken ibilgura suspentsioan dauden solido asko duten urak emateko aukerak, lurzorua drainatetik eratorritakoak, baita hormigoia ere. Horrez gain, makinaria olioak erabiltzearen ondorioz istripuz jarriak edo isurketak gerta daitezke. Arriskua badago, eta ondorioak negatiboak izan daitezke, bereziki olioie dagokienez. Aguraingo saneamendu sistemaren ustiapen fasean zehar Zadorra ibaiaren uren kalitatea hobetuko da, gaur egun zenbait inguruabarretan gertatzen diren hondakin uren isurketa arazoak ekidinduz baitira. Inpaktua neurritsua izango dela aurreikusi da, txosten honetan adierazten diren ingurumen neurriak eta baldintzak betetzen baldin badira, baita Aguraingo HAPOn 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura bukatu zuen 177/2018 Foru Aginduan ezarritako neurriak ezartzen badira ere.

Ingurumen inpaktuaren balorazio ondorioetarako aurreikusi da aukeratutako kokapena egokia dela, eremua biztanleak bizi diren ingurutik nahikoa urrunduta baitago, eta eremu industrialetik gertu. Gainera, ez du nabarmenki eraginik sortzen ingurumen balioa eta sentikortasuna duten eremuetan; hori guztia Aguraingo Hiri Antolakuntzako Plan Orokorren 3. Aldaketa Puntualaren prozedura bukatu zuen Ingurumen Txosten Estrategikoan ezarritako ingurumen baldintzak betetzen baldin badira (Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren ekainaren 5eko 177/2018 Foru Agindua. ALHAO, 71. zenbakia, 2018ko ekainak 20). Horrez gain, Ingurumen Agiriari jasotako ingurumen integrazioko neurriak eta proiektuaren Ingurumen Inpaktuari buruzko Ebaluazio Prozedura bukatuko duen Ingurumen Inpaktuari buruzko Txosten honetan jasotakoak ere bete egin beharko dira.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

“Aguraingo kolektore sare berriaren eraikuntza proiektua eta Aguraingo HUA berriaren Oinarrizko Proiektua” izeneko proiektuan jasotako jarduketak egikaritzean ingurumen inpaktuak oso altuak ez direla izango ondorioztatu da. Hala, horiek neurritsuak izango dira, eta ustiapen fasean gainerako uren kalitatea hobetuko da, betiere sustatzaileak Ingurumen Inpaktuari buruzko Ebaluazio Sinplifikatu prozedura honetan emandako dokumentazioan deskribatutako jarduketak gauzatzen baldin baditu, eta atal honetan jasotako zehaztapenak guztiz errespetatzen baldin badira.

Sustatzaileak ondorio negatiboak saihesteko, murrizteko eta konpentsatzeko proiektuan jaso behar dituen neurriak jarraian aipatu dira, sustatzaileak prestatutako ingurumen dokumentuaren 7. atalean jasotako ez gainera:

A) Lehenik eta behin beharrezkoa izango da Aguraingo Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren 3. Aldaketa Puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura bukatu zuen Ingurumen Txosten Estrategikoan adierazitako ingurumen integrazioko neurriak kontuan hartzea eta ezartzea (Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren ekainaren 5eko 177/2018 Foru Agindua. ALHAO, 71. zenbakia, 2018ko ekainak 20). Horren helburua Aguraingo HUA berriaren ezarpen eremuaren barneko lursailen hirigintza kalifikazioa aldatzea da. Errespetatu egingo da

agindu horretan adierazten diren errekaren eta tokiko zuhaitz eta zuhaixken landaketen ondoan ezarritako eremu berdea, eta hala, gutxitu egingo dira paisaian, ur bazterreko landaredian, konektibitate ekologikoan eta bereziki gainazaleko uren kalitatean sortuko diren eraginak.

B) Alivio errekatik, Lezao errekatik eta Zadorra ibaitik gertuen dauden kolektoreak egikaritzeari dagokionez, ahalik eta kalerik txikienean lan egingo da, gehienez ere 6 metrokoan, eta saihestu egingo da emariari eta landarediari eraginak sortzea.

C) Biltzailea jartzeko zangari dagozkion hondeaketa jarduketak modu hautatuan egingo dira, lurzoru horizonte desberdinak zorrotasunez batuz eta bereiziz; ondoren luraren jatorrizko profila birmoldatuko da, lanak egin aurreko egoerari dagokionez.

D) Hondalanetan landare lurrezko geruzak modu selektiboan kenduko dira. Ahal dela, berehala birbanatuko dira edo, hori ezinezkoa bada, metatu egingo dira. Halakoak emarien uholde arriskurik handieneko eremutik kanpo metatu beharko dira (10 urteko birgertatze aldia), eta gehienez 3 m-ko altuerako ebakidura trapezoidaleko multzoak egin beharko dira, lurra ez trinkotzeko. Landutako nekazaritza eremuetan landare lurrari dagokionez, landutako luraren lurzoruaren horizonte profilak modu fidagarrian lehengoratu beharko dira, lanak egin aurreko egoerari dagokionez. Ibarreko eremuetan (ibarreko landaretza duen edo potentzialki izan lezakeen eremu ez-landatuetan), lur begetalaren xedea izango da obrak ukitutako azalereetan landaretza eta lurzoru lehengoratzeko lanak egitea. Behar izanez gero, lehengoratzetan gutxienez 40 cm-ko lodiera bermatzeko helburuaz, landare lurra ekarriko da kanpotik.

E) Landatutako nekazaritza eremuan kolektorearen bideraketa instalatzeko sakonerak bermatu beharko du hodi horri ez diola inola eragingo laborantzarako eta luraren prestaketarako egin beharreko sakoneko landaketak.

F) Lanak bukatutakoan, jarduketa eremua garbitzea barne, birlandaketak egingo dira, tokiko zuhaitz eta zuhaixka espezieak oinarri hartuz, kolektorearen aldeko zanga bidegurutzeko eremuetan Alivio errekan, baita Lezao errekatik gertu duen hoditeria eremuan ere eta HUAtik datorren kolektoreak Zadorra ibaian isurtzen duen lekuan ere. Landareberritzeko lan horiek egiteko, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

– Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guztiak behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Kalitatezko landare lur geruza bat ematea, gutxienez 0,4 metrokoa, eta ondoren ukituak ematea.

– Lur lantze eta lur harrotze lanak egitea, eta ondoren fintzea, behar bezala prestatzeko azalera, ereite eta hidroereiterako.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako zopizar espezieak erabiliko dira, gramineoen eta lekadunen nahaste bat, eragina jaso dezakeen eremuko baldintza klimatiko eta edafikoetarako egokia.

– Egindako lanak paisaiaren aldetik integratzeko landaketak egitea, zuhaitz autoktonoak ukituak izan diren eremu guztietan:

Zuhaitz eta zuhaixka espezieak. Eraginpeko ur bazterretakoak: lizarrak (*Fraxinus excelsior*), sahatsak (*Salix atrocinerea*, *Salix alba* eta *Salix purpurea*), astigarrak (*Acer campestre* eta *Acer pseudoplatanus*), hurrondoak (*Corylus avellana*), zuhandorrek (*Cornus sanguinea*), elorri zuriak (*Crataegus monogyna*), etab.

Zuhaitzak: Ontzian aurkeztutako aleak, 0,60 m-tik 0,90era, izerdi bat edo bikoak eta sustraia- ren lepoan gutxienez zentimetro batekoak. Bi edo hiru metroko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxienerako dimentsioak: 0,5x0,5x0,6m.

Zuhaixkak: 0,5 m-ko altuera dutenak. Metro bateko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxienerako dimentsioak: 0,4x0,4x0,4m.

Zuloa kalitatezko lurrarekin bete ondoren, gainazalean txorko bat egingo da, erradioan 40 cm izango ditu eta ildo bitartean altuera 10 cm-koa izango da, eta 40/1 landareko ureztatzea egingo da. Askatze moteleko ongarria erabiliko da, 100 gr/ale, baita ongarri organiko konpostatuko kilo bat ere.

Landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarritzko babes bat jarriko da, "Horsol" motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m², 1 metroko zabalera osokoa, 20 cm lur azpian jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko. Landare guztietan 60 cm-ko garaiera izango duen "Tubex" motako babesgarriak jarriko dira, bai eta akaziako tutore bat ere.

Landatze aldia: abendua-otsaila.

Landaketen osoko mantenua. Haren baitan sartzen da ur defiziteko aldietan ureztatzea, ureztaketa bakoitzean landareko 12 l ur emanez eta lehen ureztaketan bakarrik landareko 100 gr (3.000 kg/ha) NPK ongarri kimiko konplexua erantsiz ureztaketa urari. Baita ondoztatzeak, saratzeak eta joraketak, beharrezkoak izanez gero, eta eraketako inausketa bat eta adar hilak eta xurgatzaileak kentzea, eta zurkaitzak eta oinarriko babesgarriak berritzea ere.

G) Zerbitzuguneak, makinaria parkeak, eta produktu kutsagarriak biltzeko eremuak ezin izango dira ezarri Alivio errekaen, Lezaio errekaen eta Zadorra ibaiaren eremuan.

H) Erabat debekatuta dago jarduketak egitean sor litezkeen hondakinak eta landare hondarrak isurtzea. Halakoak baimendutako hondakindegira batera eraman beharko dira, eta bidezkoa bada, hondakinen kudeatzaile baimendu batek eraman beharko ditu. Lanak egiteko eremuan lubrifikatzaile edo erregaiak biltegitatu behar badira, obrak egiteko epealdian edukiontzi estankoak, iragazgaiztutako biltegiak edo beste sistema batzuk prestatu beharko dira (betiere lixibatuak biltzeko sistemak dituzten gainazal iragazgaitzen gainean), eta debekatuta dago jada erabilitako lubrifikatzaile edo erregaiak isurtzea, halakoak kudeatzaile baimendu bati entregatu behar baitzaizkio.

I) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremua guztiz garbi geratu beharko da obra hondakinei dagokienez, obrak gauzatzeko egiten diren instalakuntza osagarriak barne.

J) Proiektuaren sustatzaileak berariazko baimena eskatu beharko dio Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailari, Donejakue Bideko ibilbide berdea birjartzeko; hark ezarriko ditu ibilbidea lehengoratzeko baldintza egokiak. Hori guztia, urtarrilaren 4ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeenak, ezartzen duenaren arabera. Era berean, Donejakue Bidea EAetik pasatzean Multzo Monumental Kategoria barnean Ondasun Kultural Kalifikatutzat sailkatzen duen urtarrilaren 10eko 2/2010 Dekretuan jasotakoa kontuan hartu beharko da.

K) Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren alegazio txostena kontuan hartu beharko da, Ingurumen Inpaktuari buruzko Ebaluazio Sinplifikatuaren prozedura honetako kontsulta fasean egindakoa. Hala, hauxe dio: "Proiektuan zehaztutako eremua eremu arkeologiko hauetatik hurbil dago: "Okarantzako Done Jurgi; Ula herrixka eta Urgutiako errota edo Santa Maria. Hala, gomendagarria da obraren kontrol arkeologikoa egitea, eraginik jasoko ez dutela ziurtatzeko eta sortu daitezkeen aurkikuntza berriak dokumentatzeko". Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak kontsulta fasean emandako txostenean jasotzen diren zehaztapenak kontuan hartu beharko dira, non jarduketa eremuan Ondare Kulturalerako elementu hauek daudela adierazten den: "Okarantzako Done Jurgi"; "Gazeo bideko etxola hondo" eta "Donejakue Bideko Monumentu Multzoa"; eta horiek eraginak jasan ditzakete proiektuaren egikaritzearen ondorioz. Beraz, "aurreikusitako proiektua egikaritu aurretik arkeologian eskumenak dituzten langileek azterketa arkeologikoa egin beharko dute, eta horren arabera, Arabako Foru Aldundiaren Ondare Kulturean eskumenak dituen organoak ezarriko du ea esku-hartze arkeologiko bat egin behar den lur azpian kontserbatuta egon daitezkeen hondarrak zuzentasunez dokumentatzeko".

L) IHOBE- Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak Ingurumen Inpaktuari buruzko Ebaluazio Sinplifikatuaren prozedura honetako kontsulta fasean egindako txostenean adierazitako zehaztapenak kontuan hartuko dira. Txosten horren arabera jaso zen Ingurumen Dokumentuan ez zirela jaso historikoki jarduerak kutsakorrek izan dituzten lurzati guztiak, eta ondorioz, arriskutsuak dira etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat. Horri dagokionez, eta Lurzoria kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearekin bat eginez, hauek egin beharko ziren lurzati horiek eraginpekoak izanez gero: "Induskatu beharreko materialen bolumena kontuan hartuz, indusketa plan bat aurkezteko beharra edo beharrik eza egongo da, eta plan hori ingurumen organoak onetsi beharko du. Era berean adierazten da edonola ere induskatutako materialak aurretiaz bereizi beharko direla, kudeatu eta/edo berrerabili aurretik hain zuzen ere." Indusketa plana egiaztatutako erakundeek egin beharko dute.

M) Ur Zerbitzuak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak modu koordinatuan garatu beharreko ingurumen arloko jarraipen lana egitea egokitzat jo da, obra fasean zehar, aplikatutako ingurumena lehengoratzeko neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna jakiteko eta aztertzeko, eta gabeziak gertatuz gero, horiek zuzentzeko. Lanen eta, ondoren, lehengoratzeko ingurumen arloko lanen ingurumen jarraipen egokia egiteko, lanak hastearen berri emango dio sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, lanok hasi baino gutxienez 15 egun lehenago.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Aguraingo kolektore sare berriaren eraikuntza proiektua eta Aguraingo HUA berriaren Oinarrizko Proiektua" izeneko proiektuaren Ingurumen Inpaktuari buruzko Txostena egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, Ingurumen Inpaktuaren Txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen Inpaktuaren Txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 23a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN